

20.000 eta geiago euskal-abizenen sorkuna azaltzen du nere adiskide maiteak.

Atzo idazki bat artu dut Caracas'tik. Ango euskaldunak, Euskeraren Eguna ospatzeko ango euskal-Etxean bilduak, zorionak eta agur sutsu bat bialtzen dizkidate, 70 ango euskaldunek izenpetuta, eta asmo eder bat artu dute, « zu eredutzat artuta aurrerantzean idazki geigo egingo ditugula euskeraz ». Au argitzeko esan bear dut, nere euskerazko elkar-idaztean igazko uztaillean 1000'garren idazkira eldu naizela eta nere adiskide Ibina-gabeitia'tar Andima'k irakurgai bat idatzi duela Caracas'en agertzen den « Irrintzi » izeneko aldizkari eder-ederrean.

Nere adiskideei esker emen dauzkat azkeneko denboran argitaratu diren euskal-liburu beste batzuek : Xenpelar, bertsolaria, Prosistas Navarros, Arantzazuko Amaren Edestitxoa... eta Aulestia'ko abade jaunak argitaratzen duen « zeutzat » izeneko aldizkaria ere atseginez beterik irakurri dut.

Eta Gabon-bezuza eder bat ere eldu zait Tolosa'tik, nere adiskide Labayen'dar Andoni'ren seme Matxin'ek egindako kuadrotxo bat, Ernio-mendia Tolosa'tik ikusia. Bezuza bat, benetan, bikaiña ! Marko eder batean ipiñita, nere lan-gelan zintzilikaturik dago, kuadrotxo orri begira, Euskalerriaz eta ango nere adiskideez oroitzen naiz.

Nere lerro oiek « Gora Euskera » itzekin akabatzen ditut.

EUSKALTZALEEN Biltzarra Eibar'en.

San Martin'dar Ion'ek au idazten digu :

« ERAKUNDEA

Azaroaren 6, 7 ta 8'an izan ziran Eibar'en « Euskeltzaleen biltzarra », Euskaltzaindia'k antolatuta, Eibar'ko Club Deportivo'aren laguntzarekin eta erri artako Udaletxea'ren begirapenakin. Biltzar auek Juan Antonio Mogel eibartar euskal-idazle ospetsuaren gorazarrez izanik, bertako gaiek Mogel eta Euskal-literatura zuen oñarritzat. Eta, erriaren gogoari zerbait eskeñi naian, folklorezko euskal-jaiak ere eratu ziran. Ondorean emango dugu beren berria.

ITZALDIAK

Eibar'ko Udaletxearen gela nagusian izan ziran itzaldiak, 6'an goizta artsalde eta 7'an goizetik bakarrik, Aita Iñaki Larrañaga, Pinglian'go (China) apezpikua maiburu zelarik. Izlariak erabilli zuen gai nagusia

« Mogel eta euskal-literatura » izan zan, ta Euskaltzaindia egintzaren zalea izanik, itzaldi guziak euskeraz eman ziran. Lenbiziko Jabier Egueren, Eibar'ko alkate jauna, mintzatu zan euskera eder batean, guzieri ongi-etorria emanaz, eta ongi merezitako txalo beroak entzun zituan. Izlariak auek ziran : Arrue, Arruza, Yon Etxaide, Gorostiaga, Irigaray, Lafitte, Aita Larrañaga, Lojendio, Mitxelena, San Martin, Aita Villasanté eta Zubiaurre.

Oiez gañera, Altube'n idazki bat irakurri zan Eibar'ko euskerari buruz, baita ere aitzen eman ziran I.M. Etxaide (Euskaltzaindia'ren zuzendaria) jaunak, Mogel'en « Peru Abarka » ko aditzaren erasketa lan bat, eta Urrestarazu'k mugaz bestaldeko eskoletzaz (gai antzerakoa izan zan Lafitte jaunak erabilli zuana). Azken orduan artu zan Odon Apraiz'en iragarri bat, geixorik zalako bere joan eziña agerreraziz.

PINTURA ERAKUSKETA

6'an, ostiral eguerdian, Udaletxeko gela batean Garabilla lekeitio-arraren pintura erakusketa iriki zan, eta geroko egunetan ere ikuslari asko igaro zan erakusketaren gela artatik.

ARGAZKI ERAKUSKETA

7'an, larunbat eguerdian, Club Deportivo'an, bertako bazkideak, euskeltzaleen omenez eratutako argazki erakusketa irikitzea izan zan.

EUSKAL-JAIAK « AMAYA » ANTZOKIAN

Ostiral illuntzean eta gabean, euskerazko antzerki ta abar izan ziran. Lenengo zatian Bittor Garitaonandia'n bi ekitaldiko Aitona ta billoba. Elgoibar'ko antzerki taldeak egiña. Eta bigarrenengo zatian, Angiozar'ko itsu soñujole aipatuak Euskal-doñuak, ta bere ondoren Alperrikako damua, bakarrizketa parregarria, elgoibartarren taldeko antzezleri batek egiña. Eta amaitzeko, Eibar'ko Koralak, auek kantatu zituan : Agur jaunak ! Olaizola'k armonizatua, sei abotsetara; Maitia nun zira, Uruñua-la'k armonizatua, lau abotsetara; Beti maite, erriak eratua, lau abotsetara Boga-boga. Guridi'k armonizatua ; sei abotsetara ; eta, A mutil ! Gisa-sola eibartarrak armonizatua, sei abotsetara. Gutxitan bezin jendetza ikusi zan antzoki artan eta jaiak oso atsegingarriak izan ziran.

Larunbat illuntzean eta gabean, lenbiziko, Bilbo'ko Gaztedi'ko dantzariak azaldu ziran, eta au izan zan beren programa : Otxagabia'ko dantzak, Zuberoa'ko dantzak eta Amaya operako ezpata dantza. Beren ondoren Bilbo'ko Soroak laukiak zenbait euskal kanta eder abestu zituzten, ta beren ondoren, Robles anai-arrebak beste kanta sorta bat, bertariko bat, Kattalin ttuku-ttuku, entzuleak eskaturik bi aldiz kantatu bearra izan zuen ; gau artako txalorik beroenak berentzat izan ziran, Bermeo'ko txistulari ta Euskaljerri'ko txapeldun diran Larriñaga anaiak, konsiertu berezi bat eman zuen. Ondoren, Larrañaga, eibartar zelebriak

egindako bakarrizketa. Eta bukatzeko, bertsolarien agerkuntza : Basarri, Euskalerrri'ko txapelduna ; Uztapide, Gipuzkoa'ko txapelduna ; eta, Enbeita ta Azpillaga, Bizkai'ko txapeldunak.

Ondore onak izan zituzten jai auek, batez ere larunbatekoak, sar-rera guziak bukatu bai ziran.

UMIEN SARIKETA

Larunbat arratsaldeko iruterdietan, aurrentzako sariketa izan zan, nork euskeraz obeto egin. Uste gabe batzuek sortu ziran, iritzi guzien gañetik, iñork pentsatzen zuan baño ume geiago presentatu ziran eta Udaletxean egiteko zana Untzaga'ko plazan egin bearra izan zan, eta ortarako altabozak jarri ziran. Eundaka umeaz presentatu ziran, bañan egualdi otzagaitik askok alde zuen, ta ala ta guzi ere eunera eldu ziran parte artu zutenak. Galderak iru taldetan zatituak egin ziran, bost urtera artekoak, seitik amarrera eta amaikatik amalaura. Bost urtera artekoetan auek atera ziran aurrenengo, Beatriz Ojanguren, Maria Jose Alberdi, eta Jose Gallastegi ; seitik amarrerako mallan, Maria del Carmen Ruiz de Alegria, Maria Teresa Muniategi ta Karmentxu Orozko ; nagusienetan, Arantza Mendikute eta Libe Sarasua, biak batera ta beren ondoren, bigarren, Jesus Maria Trueba eta irugarren Libe Bergaretxe.

TXISTULARIEN KALEJIRA

Igande goizeko zaspiterdietan, Bermeo'ko txistulariak, Eibar'ko Udaletxeakoak eta Club Deportivo'koak egin zuen kalejira estaziñoraño ta an erbestekoekin alkarturik, guziak, alboradea joaz, kalez-kale, Untzaga'ko plaza nagusiraño.

TXISTULARIEN KONSIERTO

Dantzariak amaituaz ekin ziran txistulariak, bertan Untzaga'ko plazan, konsierto atsegina bat emanaz, auek ziran jo zituzten piezak : Montzon'an minuetoa, Mendiko soñuak, Erauzkin'en pandangoa, Iztiharri eta Agur jaunak ! Jendeagandik gogoz txalotuak izan ziran.

GIPUZKOA'KO BERTSOLARIEN TXAPELKETA

Igande arratsaldeko lauterdietan izan zuen **EUSKAL-JAIAK** bere jarraipena Gipuzkoa'ko bertsolarien txapelketakin. Txapelketa onetan ezin izan zuan parte artu Iñaki Eizmendi'k (Basarri), Euskalerrri'ko txapelduna dalako, eta Gipuzkoa'ko bertsolaririk onenetakoak bakarrik izan ziran Aginaga'n ta Ordizia'n lenen izan ziranetatik kanpora, berek ziran Agirre, Garmendia, Lasarte, Lizaso, Mitxelena, Uztapide ta Zepai. Joko estukoa izan zuten eta Uztapide atera zan txapeldun ta Mitxelena bere ondoren. Lenbizikoak, Diputaziñoa'ren izenean makilla dotore bat eta Gipuzkoa'ko Aurrezkitegiaren 3.000 peseta jaso zituan ; bigarrenak, Gipuzkoa'ko Aurrezkitegiaren kopa bat eta Eibar'ko Udaletxea'ren 2.000 peseta, ta gañerako guztieri, bakoitzari seireuna peseta Eibar'ko Club Deportivo'aren izenean.